,

# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 16. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 16

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2020ko otsailaren 25**<br>Urgull aretoa<br>**18:00** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **20:30 /** A las 20:30 horas |

**GAI ZERRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1. Aurreko akta onartzea (10 minutu) | 1. Aprobación de acta anterior (10 minutos) |
| 2. Aurrekontuak (15 minutu) | 2. Presupuestos (15 minutos) |
| 3. Larrialdi Klimatikoari buruzko behin betiko testua (10 minutu) | 3. Texto definitivo de emergencia climática (10 minutos) |
| 4. Enobietako urtegia lehengoratzea (A. E., EHU, 15 minutu). | 4. Restauración del embalse de Enobieta (A. E., UPV, 15 minutos) |
| 5. Lurdes Txiki lehengoratzeko proiektua (M. S., Basoinsa, 15 minutu). | 5. Proyecto restauración Lourdes Txiki (M.S., Basoinsa, 15 minutos) |
| 6. Marearteko zabalgunea (Arroka, Ondarreta) babestea eta lehengoratzea (J. E., Aranzadi, 15 minutu) | 6. Protección y restauración de la rasa intermareal de Arroka en Ondarreta (J.E., Aranzadi, 15 minutos) |
| 7. Eskariak eta galdera (10 minutu) | 7. Ruegos y preguntas (10 minutos) |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | Ekologia eta Osasun Publikoko zinegotzi ordezkaria |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | EAJ/PNV m<br>PSE-EE<br>EH BILDU<br>Elkarrekin Donostia<br>PP |
| KONTSEILUKO KIDEAK<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1. HARITZALDE |

| | |
|---|---|
| | 2. EGUZKI<br>3. EMAUS FUNDAZIOA<br>4. ARANZADI<br>5. GIPUZKOAKO EHIZA FEDERAKUNTZA<br>6. COAVN<br>7. SEO DONOSTIA<br>8. CRISTINA ENEA FUNDAZIOA<br>9. HERRITARRA 1<br>10. HERRITARRA 3<br>11. DONOSTIA BIZIRIK |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | ITSAS ENARA<br>AZTI<br>KALAPIE<br>HERRITARRA 2 |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | A<br>Ingurumen eta Osasun publikoko zuzendaria<br><br>Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua / Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad<br><br>Partaidetza |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Emakumezkoak /** Mujeres = **6**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **13** |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | Ingurumeneko goi mailako lege teknikaria / Técnico Superior Jurídico de Medio Ambiente<br>ingurumena@donostia.eus |

## Saioaren bilakaera:

## Desarrollo de la sesión:

### 1. Aurreko aktaren onarpena.

Aurreko akta onartu da. Eguzki ordezkariak esan du Lourdes Txikiri buruzko puntua ontzat eman ondoren, alde egingo duela, aurreko aktetan jasotako arrazoiengatik.

### 1. Aprobación del acta anterior.

Se aprueba el acta anterior. El representante de Eguzki anuncia que tras el punto de Lourdes Txiki se marchará por los motivos que ya constan en actas anteriores.

### 2. Lurdes Txiki lehengoratzeko proiektua (M.S., Basoinsa).

Basoinzak aurkeztu du puntu hori, eta, ondoren, bertaratutako batzuek hitz egin dute. Hona hemen beren esanak, laburbilduta:

ARANZADIren ordezkariari ez zaio nahikoa iruditzen Basoinsaren proposamena, eta, haren iritziz, 50.000 euroren ordez, pare bat milioi euro beharko lirateke ingurua lehengoratzeko, balio edafikoaren galera ez dagoelako sartuta eta sartu beharko litzatekeelako.

EGUZKI eta HARITZALDE sindikatuen ordezkariek zehapen-espedienteari buruz galdetu diote lehendakariari.

ELKARREKIN DONOSTIA taldearen ordezkariak kontseiluko kideek botoa emateko eskatu du, maiatzean lurrak lehengoratzen hasi ahal izateko.

Kontseiluko lehendakariak adierazi du ez dagoela zehapen-espedientea irekitzeko oinarririk ematen duen txostenik. Hark esan bezala, ez dago horren gaineko zuzendaritza politikorik, eta epeei dagokienez, Basoinsaren proposamena berehala pasatuko da Hirigintzara. Handik aurrera, epeak luzatu daitezke, baso-soilketaren erantzuleek ematen duten laguntzaren arabera.

Elkarrekin Donostiako ordezkariaren proposamena dela eta, eztabaida sortu da landareztatzea maiatzean hasiko dela ziurtatzeko ezintasun teknikoari buruz; izan ere, enpresa jabeak alegatu, errekurritu edo beste edozein administrazio-prozedura edo/eta lege-prozedura erabil dezake proposatutako landareztatzeari ez ekiteko. Ondorio gisa, CSMAk adostasunez onartu du Hirigintza Sailari eskatzea bere esku dauden izapide guztiak azkartzea, landareztatzea lehenbailehen egin ahal izateko.

Eguzkiren ordezkariak kritikatu duenez, duela hiru urte landareztatze proiektu egoki bat idazteko ardura faltak kostu ekonomikoak ditu orain, espezie inbaditzaileak hazi egin direlako, eta gehiago espero izanez gero, kostua handitu egingo da.

### 2. Proyecto restauración Lourdes Txiki (M.S., Basoinsa).

Basoinsa presenta este punto, tras el mismo se dan varias intervenciones que vengo a resumir:

Al representante de ARANZADI le parece insuficiente la propuesta de Basoinsa e indica que en vez de 50.000 euros serían necesarios un par de millones de euros para recuperar el medio, ya que la pérdida de valor edáfico no está incluido y habría que incluirlo.

Los representantes de EGUZKI e HARITZALDE preguntan al presidente por el expediente sancionador.

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA solicita una votación de los miembros del Consejo para que para mayo se inicie la recuperación de los terrenos.

El presidente del Consejo indica que no hay informes que sustenten la apertura de un expediente sancionador. Dice que no existe dirección política al respecto, y respecto a los plazos, dice que la propuesta de Basoinsa se pasara a Urbanismo de inmediato y que a partir de allí los plazos se pueden alargar dependiendo de la colaboración de los responsables de la matarrasa.

A raíz de la propuesta del representante de Elkarrekin Donostia, se genera un debate sobre la imposibilidad técnica de asegurar que la revegetación pueda comenzarse en mayo, porque la empresa propietaria podría alegar, recurrir o utilizar cualquier otro procedimiento administrativo y/o legal para evitar acometer la revegetación propuesta. Como conclusión, el CSMA aprueba por consenso pedir al Departamento de Urbanismo acelerar todos los trámites que están en su mano, con el fin de poder realizar la revegetación cuanto antes.

El representante de Eguzki critica que la falta de diligencia, hace tres años, para redactar un proyecto de revegetación correcto, tiene costes económicos ahora puesto que especies invasoras han crecido en el terreno, y que de esperar más, el coste aumentará.

## 3. Enobietako urtegia lehengoratzea (A.E., EHU).

A.E.k aurkeztu du puntu hori. Ondoren, kontseiluko kide batzuek hitz egin dute. Hona hemen haien esanak, laburbilduta:

ARANZADIren ordezkariak urtegia erabat kentzearen alde hitz egin du; ez dago “urratze bat” egitearen alde.

GIPUZKOAKO EHIZA FEDERAKUNTZAren ordezkariaren iritziz, alde horretako biztanleak kontuan hartu beharko lirateke. Ez dator bat ganadua handik kentzeko asmoarekin.

Osasuneko eta Ingurumeneko zuzendariak jakinarazi du Artikutza inguruko udalekin Larre-Plan bat adostea lortu dela, ganadua finkaren inguruko goiko aldeetan baino egon ez dadin. Urtegian esku-hartze minimo bat egitearen alde (urratua) agertu da.

Elkarrekin Donostiako ordezkariak galdetu du ea zer egin beharko litzatekeen presa ez dadin oztopo fisikoa izan uretako faunaren zirkulaziorako. A.E.k erantzun du urratu mugatu bat nahikoa izango litzatekeela.

Aranzadiko ordezkariak urratzeko proiektuaren xehetasunei buruz eta balizko pasabide bati buruz galdetu du. Horri dagokionez, Ingurumeneko zuzendariak erantzun du proiektua idazten ari direla.

## 3. Restauración del embalse de Enobieta (A.E., UPV).

A.E. presenta este punto, tras su intervención existen varias intervenciones que vengo a resumir:

El representante de ARANZADI aboga por la retirada total de la presa y no por “un rasgado”.

El representante de GIPUZKOAKO EHIZA FEDERAKUNTZA indica que debieran tenerse en cuenta los habitantes de la zona y no comparte la retirada de la ganadería que se pretende.

El Director de Salud y Medio Ambiente informa que se ha conseguido consensuar un Plan de Pastos con los ayuntamientos del entorno de Artikutza para limitar la presencia del ganado a las zonas altas del contorno de la finca, y defiende una intervención mínima en la presa (rasgado).

El representante de Elkarrekin Donostia pregunta qué debería hacerse para que la presa no sea un obstáculo físico para el tránsito de la fauna acuática. A.E. contesta que un rasgado limitado sería suficiente.

El representante de Aranzadi pregunta por detalles del proyecto de rasgado y sobre una eventual pasarela. A esto el director de Medio Ambiente contesta que el proyecto está en fase de redacción.

## 4. Marearteko zabalgunea babestea eta lehengoratzea (Arroka, Ondarretan).

ARANZADIren ordezkariak puntu hau aurkeztu du.

HARITZALDEren ordezkaria alde hori, Santa Klara uhartea eta Igeldo/Mendizorrotzeko itsaslabarrak babes bereziko eremu izendatzearen alde agertu da. Dikea eraistearen aurka ere badago.

ARANZADIren ordezkariak kenduko luke dikea, kontuz kendu ere, “zentzugabea, artifiziala eta surflarientzat” arriskutsua dela iruditzen zaiolako. Hodiak berehala kenduko lirateke.

1. hiritar ordezkariak uste du ingurua oso ederra dela snorkela egiteko, eta hobeto seinaleztatu beharko litzatekeela arriskuak saihesteko.

.

## 4. Protección y restauración de la rasa intermareal de Arroka en Ondarreta.

El representante de ARANZADI presenta este punto.

El representante de HARITZALDE es partidario de declarar la zona de especial protección junto con la Isla de Santa Clara y los acantilados de Igeldo/Mendizorrotz; asimismo es contrario a derribar el dique.

El representante de ARANZADI sí quitaría el dique “con cuidado, ya que lo ve absurdo, artificial y peligroso para los surfistas”. Los tubos se retirarían enseguida.

La representante ciudadana n.º 1 opina que la zona es preciosa para hacer snorkel y debiera señalizarse mejor para evitar riesgos.

## 5. Aurrekontuak.

Osasun eta Ingurumen zuzendariak puntu hori

## 5. Presupuestos.

El Director de Salud y Medio Ambiente presenta este

aurkeztu du, eta, gero, Cristina Enea Fundazioko ordezkariak gauza bera egin du berearekin.

ELKARREKIN DONOSTIAko ordezkariak Ingurumeneko aurrekontuaren bilakaerari buruz galdetu du, Udalaren aurrekontu osoarekin alderatuta. Ingurumen Saileko zuzendaritzak konpromisoa hartzen du informazioa hurrengo saioan emateko.

ELKARREKIN DONOSTIAko ordezkariak galdetu du ea zer egitea aurreikusten den airearen kalitateari dagokionez. Ingurumeneko zuzendariak azaldu du alderdi hori Klima 2050 Estrategian jasota dagoela, bi ataletan: larrialdi-plan bat behar den ikustea (ez da beharrezkotzat jotzen bat egitea), eta isuriak murriztea.

## 6. Larrialdi klimatikoari buruzko behin betiko testua.

Kontseiluko presidenteak argitu du gaia atzeratu egingo dela, beste sail batzuekin partekatzen ari direlako, eta pare bat aste barru behin betiko testua prest egongo dela.

## 7. Galderak eta eskaerak.

DONOSTIA BIZIRIK elkartearen ordezkariak Hondakinen Dokumentu Gidarian jasotakoaren garapenaz galdetu du.

Cristina Enea Fundazioaren ordezkaria uste du beharrezkoa dela denborei egokitzea, eta erakusketek ez dutela aurreikusitako denbora gainditu behar.

1. hiritar ordezkariaren iritziz, ona litzateke Ingurumen Sailak egiten dituen jardueren egutegia egitea.

HARITZALDEren ordezkariak galdetu du Belartzari buruzko epaia betearazteaz eta Urumean duela gutxi egindako isurketaz.

Kontseiluko lehendakariak adierazi du isurketari buruzko informazio-espedientea ireki dela eta ETSera eta URAra jo dutela.

Igeldo/Mendizorrotzeko lantaldean Kontseiluak izan behar dituen bi ordezkariak hautatzeko modua eztabaidatu ondoren, HARITZALDE eta ARANZADI izendatzea erabaki dute.

20:30ean amaitu da bilkura.

punto, y luego el representante de Fundación Cristina Enea hace lo propio con el suyo.

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA pregunta por la evolución del presupuesto de Medio Ambiente respecto al total del Ayuntamiento. La dirección del departamento de Medio Ambiente se compromete a aportar la información en la próxima sesión.

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA pregunta qué se prevé hacer en cuanto a la calidad del aire. El director de Medio Ambiente explica que este aspecto está recogido en la Estrategia Klima 2050 en dos apartados: ver si hace falta un plan de emergencia (no se ve necesario hacer uno), y reducir las emisiones.

## 6. Texto definitivo de emergencia climática.

El presidente del Consejo aclara que se aplaza este punto porque se está compartiendo con otros Departamentos, y que en un par de semanas estará listo el texto definitivo.

## 7. Ruegos y preguntas.

El representante de DONOSTIA BIZIRIK pregunta por el desarrollo de lo recogido en el Documento Director de Residuos.

El representante de Cristina Enea cree necesario ajustarse a los tiempos y que las exposiciones no sobrepasen el tiempo previsto.

La representante ciudadana n.º 1 ve recomendable una calendarización de las actividades que lleva a cabo Medio Ambiente.

El representante de HARITZALDE pregunta por la ejecución de la Sentencia de Belartza y por el reciente vertido al Urumea.

El presidente del Consejo indica que se ha abierto un expediente informativo respecto al vertido y que ya se han dirigido a ETS y a URA.

Tras debatir la forma de elegir los dos representantes del Consejo Sectorial en el grupo de trabajo de Igeldo/Mendizorrotz, se acuerda que sean HARITZALDE y ARANZADI los miembros designados para la dicha comisión.

Finaliza la sesión a las 20:30 horas.